



Azpeitiko Udala

IRAGARKIA

Dagoeneko amaitua da 2021eko Azpeitiko Udaleko Aurrekontuaren barruan 2 zk. duen kreditu gehigarrien bidez egindako Kreditu Aldaketarako Espedientea jendeari erakusteko epea. Erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez denez, behin-betiko onarpena eman zaio aipatu espedienteari.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, argitara ematen dira aldaketa horiek kapituluka laburturik.

2021eko AURREKONTUA

KREDITU ALDAKETAREN ZK.: 2 KREDITUAK GEHITZEA

Kapitulua	Izena	€
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	486.000,00
4	Transferentzia arruntak	296.000,00
6	Inbertsio errealak	2.411.000,00
7	Kapital transferentziak	400.000,00
GUZTIRA		3.593.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	€
8(Sarrerak)	Finantza-aktiboak	3.593.000,00
GUZTIRA		3.593.000,00

Era berean, erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietarako Salan iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Udalbatzarrari iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Azpeitian, 2021eko apirilaren 22a

Alkatea,



Nagore